

## IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026



### BENTADES IKASTETXEA

<b>Ikasgaia/ Arloa</b>	EKONOMIA		
<b>Irakaslea(-k)</b>	Imanol Egia / Markel Dominguez	<b>Ikasturtea 2025-2026</b>	2025 / 2026
<b>Zikloa/ Maila</b>	DBH4	<b>Talde kopurua</b>	2

#### JUSTIFIKAZIOA

Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealitate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.

Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzen hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz.

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia (HKK) Konpetentzia Eleaniztuna (KE) Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeneritzarako konpetentzia (STEM) Konpetentzia Digitala (KD) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII) Herritartasunerako Konpetentzia (HK) Ekintzailtza Konpetentzia (EK) Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)	<u>Ikus anexo</u>

**KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)**

<p>1. Norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak analizatzea eta baloratzea, gaitasunei buruz gogoeta eginez eta behar diren emozioak eta trebetasunak eraginkortasunez kudeatuz, ingurune aldakorretara egokitzeko eta gizartearentzat balioa sortuko duen proiektu ekintzaile pertsonal bakarra diseinatzen.</p>	<p>1.1. Proiektu pertsonal original eta balio-sortzaile bat sortzea, ingurune konplexu eta aldakorretara egokituz, eta norberaren eta besteen indarrak eta ahuleziak arrazoituta analizatzeko estrategiak erabiliz.</p> <p>1.2. Emozio eta trebetasun pertsonalak eraginkortasunez kudeatzea, norberaren gaitasunei buruz gogoeta eginez eta jarrera sortzaileak sustatuz eta garatuz.</p>
<p>2. Taldeak osatzeko estrategiak erabiltzea, baita gizarte-trebetasunak, komunikaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak ere, horiek hainbat testuingurutako lan-dinamiketan autonomiaz eta motibazioz aplikatuz, lantalde eraginkorrak eratzeko eta irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan beste pertsona batzuekin kooperazioan aritzearen balioa ezagutzeko.</p>	<p>2.1. Ekitatearen, hezkidetzaren eta gizonen eta emakumeen arteko ekitatearen printzipioetan, parte hartzeko jarreraren eta helburu komunak bistaratzean oinarritutako lantaldeak eratzeko, helburu gisa hartutako erronka lortzeko behar diren giza baliabideak identifikatzen eta optimizatzen lagunduko duten estrategiak erabiliz.</p> <p>2.2. Trebetasun sozialak, komunikazio irekikoak, motibaziokoak, lidergokoak, kooperaziokoak eta berrikuntza bizkorrekoak praktikan jartzea talde-laneko hainbat testuingurutan, analogikoetan zein digitaletan.</p> <p>2.3. Gauzatutako prozesuaren faseetan eta lan-dinamiketan besteen ekarpenak baloratzea eta errespetatzea, modu kolektiboan hartutako erabakiak errespetatuz.</p>
<p>3. Hautemandako behar ekonomiko eta/edo sozial tokiko eta globalei erantzungo dieten ideia eta irtenbide berritzaileak eta iraukorrak lantzea, zentzu etiko eta solidarioarekin, asmatzeko metodologia bizkorrak erabiliz eta haien indarrak eta ahuleziak nahiz ideia horiek ingurunean sor dezaketen inpaktuak analizatuz, ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa babesteari eta zaintzeari lotutako erronkak gainditzea lortzeko.</p>	<p>3.1. Ingurune naturala, soziala, kulturala eta artistikoa zaintzeko eta hobetzeko jardutea, garapen iraunkorra sustatuko duten proposamen eta jardura tokiko eta globaletatik abiatuta, ikuspegi sortzaile, ekintzaile eta konprometituarekin. Ideiak garatzea eta irtenbide bizkor, berritzaile eta iraukorrak bilatzea helburu hartutako erronkak gainditzeko, horien abantailak eta eragozpenak eta izaera etikoa ebaluatuz, baita maila pertsonalean eta ingurunean sor dezaketen inpaktuaren ebaluazioa eginez ere.</p>
<p>4. Proposatutako ideia edo irtenbide sortzailea garatzeko prozesuan eskuragarri dauden baliabideak hautatzea eta biltzea, baliabide horiek ematen dituzten produkzio-bitartekoak eta finantza-iturriak ezagutzeko eta horiek erakartzeko estrategiak aplikatuz, irtenbide ekintzailea errealitatera eramango duen proiektua abian jartzeko.</p>	<p>4.1. Irtenbide ekintzaile bat errealitatera eramango duen proiektu bideragarri bat abian jartzea, sormenezko asmatze-prozesuan eskura dauden baliabide materialak, immaterialak eta digitalak aukeratuz eta bilduz, eta horien erabilera efizientziaz planifikatuz.</p> <p>4.2. Baliabideak erakartzeko eta kudeatzeko estrategiak autonomiaz erabiltzea, ideiak eta irtenbideak ekintza bihurtzeko prozesuaren ezaugarriak ezagutzeko.</p> <p>4.3. Proiektu ekintzaileari ondoen egokituko zaion forma juridikoa aukeratzea eta enpresaren zerga-betebehar nagusiak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak identifikatzea, proiektua abian jartzeko tramiteak ezagutzeko.</p>
<p>5. Ideia eta irtenbide sortzaileak aurkeztea eta azaltzea, komunikazio-estrategia bizkorrak erabiliz eta komunikazio eraginkor eta errespetuzkoaren garrantzia baloratuz, egoera bakoitzaren testuinguruari eta helburu zehatzei egokitutako mezu sinagarriak transmititzeko eta aurkeztutako ideia eta irtenbide ekintzaileak baliozkotzeko.</p>	<p>5.1. Testuingurura eta helburu zehatzetara egokitutako sormenezko ideiak eta mezu sinagarriak aurkeztea eta azaltzea, aurkeztutako ideiak eta irtenbideak baliozkotzeko, prozesu osoan zehar komunikazio eraginkorra eta errespetuzkoa mantentzearen garrantzia baloratuz.</p>

<p>6. Ekonomiaren eta finantzen oinarrizko alderdiak ulertzea, ingurune ekonomikoa eta soziala analizatuz, behar diren baliabideak planifikatuta, planteatzen diren erronka berriei erantzungo dien ideia edo irtenbide ekintzaile bat garatzeko.</p>	<p>6.1. Beharrak hautematea, ingurune ekonomikoari eta sozialari buruzko analisiaren bidez, behatutako ondorioak ideia berritzaile bat sortuz.</p> <p>6.2. Erronkei modu sortzailean, eraginkorrean, ekitatiboan eta jasangarrian aurre egitea, zenbait testuinguru eta egoera erreal edo simulatutan, beharrezko ezagutza ekonomiko eta finantzarioak transferituz.</p> <p>6.3. deia edo irtenbide ekintzaile bat garatzea, ekonomiaren eta finantzen esparrutik eskuratutako ezagutza, trebetasun eta jarreretatik abiatuta, horien eta horiek garatzeko behar diren eta eskuragarri dauden baliabideen arteko harremana ikusiz.</p>	
<p>7. Modu kooperatiboan, autonomoan eta bizkorrean prototipo berritzaileak eta iraunkorrak eraikitzea eta analizatzea, diseinatzeko eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak aplikatuz, prozesu ekintzailearen fase guztiak modu kritikoan eta etikoan ebaluatuz eta lortutako emaitzak baliozkotuz, bai sortutako prototipoak hobetzeko eta perfektionatzeko, bai ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboan aurrera egiteko.</p>	<p>7.1. Bai ikaskuntzarako, bai garapen pertsonal eta kolektiborako, azken prototipoaren ekarpena baloratzea, gauzatutako prozesuaren fase guztiak modu kritiko eta etikoan ebaluatuz, baita hura eraikitze erabilitako estrategien egokitzapenaren ebaluazioa eginez ere.</p> <p>7.2. Sortutako prototipoak egiteko jarraitutako diseinu-eta egikaritze-prozesua modu kritikoan analizatzea, prozesuetan lortutako eraginkortasunaren, bideragarritasunaren eta egokitzapenaren eta lortutako emaitzen arteko konparazioak ezarriz.</p> <p>7.3. Diseinatzeko eta egikaritzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea, azken prototipoa modu bizkor, kooperatibo eta autonomoan eraikitzea erraztuko dutenak hautatuz.</p>	
<b>SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA</b>		
<b>1. ebaluaketa</b>		
<p><b>Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da?</b></p>	<p><b>BALIOAK</b></p>	<p><b><u>Konpetentzia espezifikokoak laburtuta</u></b></p>
<p>1. FROGA (1. eta 2. Gaiak)</p> <p>1.- Zer da Ekonomia? 2.- Ekoizpena</p>	<p>30%</p>	<p><input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.</p> <p><input type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzungo dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze.</p> <p><input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea.</p> <p><input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta</p>
		<p><input type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.</p>

2. FROGA (3. Gaia)  3.- Enpresa	30%	<input type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
EKINTZAILETZA PROIEKTUA  1. Fasea	30%	<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
<b>2. ebaluaketa</b>		
<b>Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua</b>	<b>BALIOAK</b>	<b><u>Konpetentzia espezifikokoak laburtuta</u></b>
1. FROGA (4. eta 5. Gaiak)  4.- Langabezia 5.- Estatua	30%	<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
		<input type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.

2. FROGA (6. Gaia)  6.- Inflazioa	25%	<input checked="" type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
ZERGA-HEZKUNTZA PROGRAMA	35%	<input type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input checked="" type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
<b>3. ebaluaketa</b>		
<b>Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua</b>	<b>Konpetentzia espezifikoak</b>	<b><u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u></b>
1. FROGA (7. Gaia)  7.- Nazioarteko Ekonomia	30%	<input checked="" type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea. <input type="checkbox"/> Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko. <input type="checkbox"/> Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak <input checked="" type="checkbox"/> Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze. <input checked="" type="checkbox"/> Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea. <input type="checkbox"/> Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
		<input type="checkbox"/> Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.

2. FROGA (Albistek)	20%	<input type="checkbox"/>	Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak
		<input type="checkbox"/>	Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea.
		<input type="checkbox"/>	Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
EKINTZAIETZA PROIEKTUA  2. Fasea	40%	<input checked="" type="checkbox"/>	Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak
		<input checked="" type="checkbox"/>	Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak aztertzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Irtenbide ekintzaileak asmatu eta garatzeko prozesuan lankidetzan aritzeko.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Behar ekonomiko eta/edo sozialei erantzun dieten irtenbide berritzaile eta iraunkorrak
		<input checked="" type="checkbox"/>	Produkzio-bitartekoak eta finantzaketa-iturriak ezagutzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Sormenezko ideiak eta irtenbideak aurkeztea eta azaltze.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Alderdi ekonomikoak eta finantzarioak ulertzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	Prototipo berritzaileak eta iraunkorrak modu kooperatiboan eta autonomoan eraikitzea eta
<b>BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA</b>			
<p>DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da. Ebaluaketa guztietan erreperazioak egingo dira eta erreperaketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira. Horrela gaintu gabeko ebaluaketa bat gaintzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gaintu ez dena gaintzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gaintzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaintuta izatea. Ekainean irakasgaia gaintu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaintuz gero, aurreko ikasturtea gaintutzat emango da. Ikasleak eskatuz gero, irakasleak udan lan egiteko materiala eskainiko die ikasle hauei.</p>			
<b>ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK</b>			

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezten. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzen zuzenduko da (ez oinarritzako jakintzak ebaluatzen). Konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarriei erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzako da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio eragileak: autoebaluazioa, koebaluazioa eta heteroebaluazioa.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira, ikasleen ezaugarri eta premia indibidualetara egokitzuz (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, frogak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

## METODOLOGIA

Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jarduerak eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemen ebazpena, eta egoera errealetan oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatzeko.

Materialak eta jarduerak antzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokitzuz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoa eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.

Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko.

## ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoa garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.

Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmo eta gaitasunetara moldatuz. Gainera, indartze eta sakontze jarduerak proposatzen dira, ikasleek ikasgaiak ondo menderatzen dituztenean, haien jakintza zabaltzeko.

Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten.